



FUNTZIONAMENDU ARAUAK Ospitalizazioko Unitatea – UROLOGIA

Dei egiteko beharrea bazea, ERABILI GELAKO TXIRRINA

MEDIKUAREN BISITA / FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA

- Eskatu laguntza behar duzun guztietan.
- Egunero pijama edo ohe-atorra jasoko duzu. Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNARI eusten.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurrunak edo lurgabeak.

EBAKUNTZA EGIN BEHAR IZANEZ GERO, JAKIN BEHARREKOA



- Interbentzioak irauten duen bitartean gelan edo egongelan egon zaitezke.
- Interbentzio ondoko informazioa Unitatean ematen da.
- Anestesia ondoko bizkorketa, ABUn egiten da, operazio-gelan.

MEDIKUAREN IKUSTALDIA ETA FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA



- Egunero 9:00etatik 13.00etara.
- Pazientearen eboluzioari buruzko informazioa bisita egin bezain laster ematen da.

OTORDUAK



08:15 - 08:45 Gosaria
12:45.- 13:15 Bazkaria
16:45 - 17:15 Askaria
19:45 - 20:15 Afaria

BISITAK

- 15:00etatik 22:00etara- Astegunetan
 - 08:00etatik 22:00etara – Larunbat eta igandeetan
 - **Pazienteko 2 pertsona, gehienez.**
- Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke.

BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili.



LAGUNTZA ETA HEZKUNTZA SANITARIOA

Memento jakin batean beharrezkoa izango da familiarrekoren baten presentzia alta ondoko zainketak nola egin ikasten laguntzeko.



Ingresuko egiaztagiria (enpresarako, oheburuko medikuarentzat edo familiarrekorentzat), behe solairuan, sarreran, dagoen Harrerako Unitatean jaso daiteke.



SANTIAGO OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007600

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000887. Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.



Telebista-zerbitzua ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora. Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-e.



KAFETEGIA Ordutegia: 8:00etatik 22:00etara.

Ate nagusiaren aurrean dago.
Itxarongetan kafeak eta freskagarriak ematen dituen makina batzuk daude.



ALTA hartzen duzun egunean, alta txostena jasotzen duzun bezain laster, gela utzi beharko duzu eguerdiko **ordu biak** baino lehen.

ERLIJIO-ZERBITZUA



- Beheko solairuan -B Pabiloian KAPERA bat dago
- Mezen ordutegia: Igande eta jai egunetan: 11:30ean; lan egunetan: 20:00etan.
- Apaiza eguneko 24 orduetan.
- Beste erlijio batzuetako pazienteek eta senideek laguntza eskatu diezaiokete euren arimako maisuari..

PAZIENTEAK ETA ERABILTZAILEAK ATENDITZEKO ZERBITZUA (PEAZ) beheko solairuan dago.

Udako ordutegia: 9:00 etatik 14:00 etara (astelehenetik ostegunera)

Neguko ordutegia: 9:00 etatik 14:00 etara eta 15:30 etatik 17:00 etara (astelehenetik ostegunera)

9:00 etatik 14:00 etara (ostiraletan).